

2019ko apirilaren 12a

## Donostiako Giza Eskubideen 17. Zinemaldia: Ognjen Glavonić serbiar zuzendariaren “La carga (Teret)” filmak eskuratu du Amnesty International saria

Donostia.- Donostiako Giza Eskubideen 17. Zinemaldian, Amnesty International sariaren epaimahaiak Ognjen Glavonić serbiar zuzendariaren “La carga (Teret)” film luzea saritzea erabaki du. Balkanetako gerraren zama astunari buruzko filma da, konpromiso etikoa aldarrikatzen duena, eta “gerra eta balio etikorik eza nagusi diren testuinguru batean salaketa-ekintza indibiduala defendatzen duelako” merezi izan du saria.

Amnesty Internationalek saritutako filma Vladaren istorioa kontatzen du, 1999an NATOko indarrek Serbia bonbardatu zutenean kamioi-gidari gisa zebilen gizon baten istorioa. Haren azken lana Kosovotik Belgradera zama misteriotso bat garraiatzea izango da, eta ezezagun duen lurralde gogor eta arriskutsu batean barrena bidaiatu beharko du, gerrak suntsitutako herrialde batean. Badaki behin lana amaituta, etxera itzuli, eta bere ekintzen ondorioei aurre egin beharko diela.

Epaimahaiak proposamen zinematografiko ausart eta argi bat aukeratu du, gidoiaren mezu indartsuan konfiantza duena eta kontzientzia indibiduala aldarrikatzen duena.

Zinemaldia joan zen ostiralean hasi zen, eta gaur arratsaldean amaituko da. Itxiera-ekitaldia 20:00etan hasiko da, Victoria Eugenia Antzokian, eta bertan emango da Amnesty International saria, Koldobika Jauregi euskal artistaren *Bidai luzea* izeneko eskulturak sinbolizatua. Oraingoan, Euskadiko Amnesty Internationalen koordinatzaile Edurne Etxebarriak emango dio saria irabazleari.

Jarduera paralelo gisa, zine-foruma ere egin da Tomasene Kultur Etxean, “*Grietas*” izeneko dokumental luzearen inguruan. Dokumental hori, Xuban Intxaustik zuzendu eta Mediaprok ekoitzia, Espainiako Amnesty Internationalen 40. urteurrenerako sortu zen.

Horrez gainera, film emanaldiak aprobetxatuz, Amnesty Internationaleko aktibistek sinadurak bildu dituzte Victoria Eugenia Antzokian, Zinemaldiaren egoitza nagusian, erakundeak Israel, Iran, AEB, Bahrain eta beste herrialde batzuetan salatu nahi dituen kasuei buruzko kanpainetarako.

/// AMAIERA

### Amnesty International Euskadi - Prentsa-arduraduna

Juan Carlos Giménez

[medios.euskadi@es.amnesty.org](mailto:medios.euskadi@es.amnesty.org)

Telf., 94 694 59 85 Móvil 602 216 346

### Dokumentuak eta prentsa oharrak

[www.es.amnesty.org](http://www.es.amnesty.org)

# KOMUNIKATU

**AMNESTY  
INTERNATIONAL** 

AMNESTY INTERNATIONAL  
Euskadi

Bertako taldeak:

Ibáñez de Bilbao, 2, 2º A  
48001 BILBO  
E: [bilbao@es.amnesty.org](mailto:bilbao@es.amnesty.org)

Callejón de San Bartolomé, 5  
20009 DONOSTIA  
Tel.: 943 46 30 91  
[gipuzkoa@es.amnesty.org](mailto:gipuzkoa@es.amnesty.org)

Nueva dentro, 20, bajo  
01001 GASTEIZ  
Tel.: 945 25 94 38  
[vitoria-gasteiz@es.amnesty.org](mailto:vitoria-gasteiz@es.amnesty.org)